


WILLIAM SHAKESPEARE - SONETOAK

Zeru horren infernuak



Shakespeareren lanen bertakotze-maila omen da kultura baten garapenaren neurrietariko bat. Shakespeareren *Sonetoak* lirikaren gailurrik bikainenetarikotzat jotzen dira, eta kultura-gertakari handitzat hartzen da obra hori beste hizkuntza batera ekartzeko saio bakoitza.

Juan Garzia Garmendia literatura-itzultzaileak aspalditik jardun du buru-belarri Shakespeareren sonetoak euskarara egokitze ahaleaginean. Hogei bat urtez landu eta orraztu ditu, behin eta berriro, 154 sonetoak eta beste hainbeste argibide-iruzkin ere gehitu, irakurleari bidea errazteko. Horrenbestez, *Sonetoen* edizio eder bat apailatu da 2014 urtean, sortu berri den **Mikel Laboa Katedraren** bultzadaz eta laguntzaz.




Shakespeare euskaraz biziberritzea *Oihenart* biziberritzea ere bada, edo *Etxeberri* biak, edo *Lauaxeta*, *Lizardi* zein *Lazarraga*, eta are *Leizarraga*, *Aresti* nahiz *Atsular*. Juan Garziak horienean jo du atea kox-kox, baina ez gutxiago *Bernat Etxepareren* erritmo-errimetan edo ahozko tradizioko ereduetan, bertsolaritza zaharrean edo orainagoko idazle nahiz itzultzaileen ekarrietan. Soneto hauek irakurri-entzun ahala, gure kultura literarioaren soinutxo hori atzematen da, kultura unibertsalarekin parez pare mintzatzen jarria.

Sortu berrian heldu zion Mikel Laboa Katedrak proiektu honi, testuarekin batera euskal kulturako bestelako arte-hizkuntza batzuk ere hitzezko hizkuntzaren jai honetara gogatzeko ametsaren atzetik.

Sonetoek soinua eskatzen dute, barne zein kanpoko ahots bat. Euskal poesian, soneto edo *hamalaudun* deritzon moldeak ez du izan forma finkorik, eta tradizio sendoagoa duten hizkuntzetako bertso-lerro estandarrak berak ere –pentametro janbikoak, endekasilaboak– ez du baliokide garbirik euskarazko olerkigintzan. Obra bakar batek ezin ditu bete, jakina, hutsune horiek guztiak, baina bai eredu bat eskaini, Shakespearerek zerabilen moldetik hurbilena. Errezitazioak, beraz, oso leku garrantzitsua du gure egitasmoan, bolumen handiko corpus bat eskaintzen baitio euskal belarriari forma horretara ohitu dadin.

Errezitazioen soinu-hartze gehienak eta lehenak Donostiako EHUKo Carlos Santamaria eraikinean egin ziren. Bilbon ere izan ginen, Bilbo Zaharra euskaltegian. Bai eta Iruñean ere, Zaldiko Maldiko elkarteetan. Gasteizen, berriz, Ignacio Aldecoa Kultura Etxean. Tartean, Luhusoan, Ximun Haran zenaren etxekoek hartu gintuzten beren lagunarte goxoan. Gainerakoak tantaka grabatuak dira, Hernanin gehienak, Aztarna estudioan, eta han-hemenka gainerakoak.



Ezin liteke hitzez adierazi nolako jarrera bihotz-zabala jaso dugun inoren atean ahots eske jo dugun bakoitzean. Gutxi dira hor halako lanetan eskarmentu handirik zutenak, baina kostako zaio entzuleari hala dela sinestea emaitzaren egokitasun eta are bikaintasunari erreparaturik .



Bistakoa da poesiak, eta lirikak bereziki, lotura zuzena duela musikarekin, eta bada proiektuan beste partaidetza bat, arte horretarako ere: **Joxan Goikoetxea** musikariak, berak sorturiko doinuz, kanta bihurtu ditu Sonetoetariko batzuk, eta euskal kantari multzo ezagun batek jarri dio ahotsa, Goikoetxearen beraren musika-moldaeraz eta haren gidaritzapean. *Paco Ibañez, Pier Paul Berzaitz, Olatz Prat, Eñaut Elorrieta, Mikel Urdangarin, Estitxu Pinatxo, Petti eta Amaia Azkue.*

Horra zirkulua osatua: Mikel Laboaren ume direnek jarri diote soinua bardoaren hitz euskaratuei, Katedraren eta Aztarna argitaletxearen proiektuaren ekimenez. Kanta bihurturikoez gainera, bada, hala ere, doinu gehiago. Errezitazioetariko batzuk musikaz girotu eta apainduak doaz, bereziki landurik eta kantekin tarkekaturik.



Orain 20 urte bete berri duen **Aztarna** argitaletxeak, bere lan eta argitalpen guztietan egin izan duen moduan, arteartekotasuna bultzatu nahi du. Liburu-diskaren alderdi plastikoaz, hala, **Koldobika Jauregi** artista bikaina arduratu da, bai diseinuari eta bai irudiztapenari dagokionez.


Azkenik, *Olaso Dorrearen Fundazioa* etorri zaigu babesle, zain-adarrak hain zabaldurik abarotu ezinik genbiltzan landarea zaintzera. Eskertzekoa da eman diguten laguntza hala material nola sinbolikoa.

Bedatsaren pare loratu zaigu proiektua, letratik ahotsera eta musikara eta irudira; Shakespeare euskaraz arnasberitu da, eta euskara Shakespearez.

Nola eskertu kantari-musikari eta errezitatzailen lana –haien artean, Paco Ibañez gurea, Mikelen xinaurri oraingoan–, hain ederki soinupiztu baitute tinta zahar betiereko hau.

Tamala Mikel Laboa haragiz gure artean ez egotea: zezelkatuko zigun lekeitioaren bat, eta dastaraziko izarren hauts Letezkoa, lau haizetatik lau haizetara, lau haizetara.

Juan Kruz Igerabide
Mikel Laboa Katedraren zuzendaria




WILLIAM SHAKESPEARE - SONETOAK

Zeru horren infernuak

Kredituak

Liburua - 344 orrialde + 2 CD Audio
23 doinu – 154 errezitatu



Bertsioa eta iruzkinak: Juan Garzia Garmendia
Azala eta ilustrazioak: Koldobika Jauregi
Musika: Joxan Goikoetxea

Kantariak

Olatz Prat, Eñaut Elorrieta, Pier Paul Berzaitz, Paco Ibañez,
Estitxu Pinatxo, Amaia Azkue, Petti, Mikel Urdangarin

Musikariak

Txema Garcés – Oriol Flores – Roberto Yaben – Balen López de Munain
Iosune Marin – Ion Mari Beasain – David Escudero – Oihane Igerabide
Alan Griffin – Mixel Ducau – Juanjo Otxandorena – Luis Fernández
Suso Saiz – Joan Valent – Ara Malikian – Robert Rich – Felipe Ugarte

Errezitatzailleak

Gana Salaberri - Lorea Arrieta - Pierre Salaberri - Patxi Zubizarreta - Odile Kruzeta - Aritz Gorrotxategi - Jon Aurre - Jon Bagüés - Maialen Berasategi - Mari Jose Olaziregi - Asier Larrinaga - Juanan Legorburu - Jose Ramon Etxebarria - Iratxe Goikoetxea - Mirentxu Larrañaga - Lauren Etxepare - Itziar Iriondo - Lurdes Auzmendi - Auxtin Zamora - Xabi Paya - Mila Garmendia - Kirmen Uribe - Jose Angel Lasa - Larraitx Ariznabarreta - Joxerramon Zubimendi - Joxean Sagastizabal - Miren Agur Meabe - Arantxa Urretabizkaia Idoia Santamaria - Maialen Heguy-Lucu - Pello Otxoteko - Itziar Zubizarreta - Rikardo Arregi - Joseba Urteaga - Lontxo Oihartzabal - Monika Czerny - Leire Mendiburu - Ramon Agirre Arantzazu Royo - Julia Marin - Mañu Elizondo - Bego Montorio - Lourdes Oñederra - Gotzon Egia - Bego Muruaga - Jexuxmari Mendizabal - Jexuxmari Mujika - Aizpea Goenaga - Joxean Muñoz - Gerardo Markuleta - Anjel Lertxundi -Txomin Sagarzazu - Joseba Andoni Lakarra - Koldo Tapia - Joxe Austin Arrieta - Manex Fuchs - Jose Luis Padrón - Joxerra Garzia - Karlos Linazasoro - Patxi Goenaga Xabier Olarra - Pello Lizarralde - Edorta Jimenez - Fernando Rey - Karlos Zabala - Itziar Alkorta - Koro Navarro - Angel Erro - Maite Iribar - Xabi Auzmendi - Itxaro Borda - Miren Azkarate - Ximun Fuchs - Julian Maia - Maika Etxekopar - Joseba Urkia Uxue Alberdi - Patxi Petrirena - Mayi Iza - Xabier Mendiguren Bereziartu - Manu Lopez Gaseni - Xabier Mendiguren Elizegi - Juan Kruz Igerabide - Koldobika Jauregi - Beñat Sarasola - Pello Salaburu - Beñat Axiari - Pedro Alberdi - Bakartxo Arrizabalaga - Iñaki Ugarte - Eider Rodriguez - Oskar Arana - Mikel Lasa - Pako Aristi Juan Luis Zabala - Iñigo Roque - Iñaki Iñurrieta Xabier Zaldúa - Xabier Euzkitze - Joxemari Iturralde - Irene Arrarats - Irene Aldasoro - Isabel Etxeberria Frantxi Lopez Landatxe - Patziku Perurena Harkaitz Cano Jabier Kaltzakorta - Agustin Arrieta - Itziar Laka - Inazio Mujika Iraola - Jorge Gimenez - Josu Zabaleta - Aritz Branton - Amets Arzallus - Jose Ramon Muruaga Bernardo Atxaga - Mikel Taberna - Andoni Egaña - Maddi Oihenart - Oier Guilan - Koldo Biguri - Manex Mujika - Ramon Saizarbitoria - Hasier Etxeberria - Rikardo Etxepare - Xabier Montoia - Nekane Lasa - Juan Ramon Makuso - Jokin Ansorena - Elixabete Perez Gaztelu - Arantxa Iturbe - Joxan Goikoetxea - Pantxoa Etchegoin - Iban Zaldúa - Alfontso Mujika - Ramon Etxezarreta - Gidor Bilbao - Juan Garzia Garmendia.

 NAZIOARTETIK BRANTASUN CAMPUSA CAWTHS DE ERZTEJENIA INTERUNIBERSITARIA	Mikel Laboa Katedra Zuzendaria: Juan Kruz Igerabide 653 722 241 igerabide@gmail.com
	AZTARNA Joxan Goikoetxea 656 785 767 aztarna@aztarna.com

